



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko otsailaren 21a

25. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/ITP-00005. Interpelazioa, helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (3. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-24/POR-00073. Galdera, Nafarroako Gobernuko goi-kargudunen agenda instituzionala argitaratzeari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak egin du (4. or.).

—11-24/POR-00074. Galdera, Belateko tunelen kontratazio-mahaiko buruak kontratazio-mahaian egin diren proposamenak errefusatzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00075. Galdera, institutu publiko batean iragan otsailaren 9an ETArene alde egindako kantuak direla-eta hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).

—11-24/POR-00076. Galdera, etxebizitzaren alokairu-prezioen ondorioz tentsiopeko zonak deklaratzeari buruzkoa. Irati Jiménez Aragón andreak egin du (6. or.).

—11-24/POR-00077. Galdera, Enplegurako Prestakuntzari buruzko I. Kongresu Nazionalari buruzkoa. Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00078. Galdera, Guardia Zibileko agenteendako lan-baliabide eta -ekipamendu egokirik ezari buruzkoa. Emilio Jiménez Román jaunak egin du (7. or.).

—11-24/POR-00079. Galdera, nekazarietarako eta abeltzaintzarako neurri fiskalei buruzkoa. Irene Royo Ortín andreak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00080. Galdera, Industriaren Mahaiaren helburuei eta lan-egutegiari buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (8. or.).

—11-24/POR-00081. Galdera, zibererasoen aurrean erakundearen segurtasuna bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (9. or.).

—11-24/POR-00082. Galdera, Espainiako Gobernuari Nafarroaren zor publikoko 550 milioi euro bere gain har ditzan exijitze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (10. or.).

- 11-24/POR-00083. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak orain zergatik uste duen ez dela beharrezkoa bere konpromisoa betetzea, sustapen ekonomikoarekin eta enpresa-lehiakortasunaren garapenarekin lotutako eginkizunak betetzen dituzten sozietate publikoen bikoiztasuna ekiditekoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00084. Galdera, STEM karrerak emakumeen artean sustatzeari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (11. or.).
- 11-24/POR-00085. Galdera, nekazaritzako sektorearekin egindako bilerei eta Landa Garapeneko Departamentuaren posizioari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/POR-00086. Galdera, aurrekontuetan jasotako diru-bilketaren galeraren eta azken urteetako joeraren balorazioari buruzkoa. Laura Aznal Sagasti andreak egin du (13. or.).
- 11-24/POR-00087. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei-Erorien monumentua” eraisteko proposamenari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00088. Galdera, 2023an Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin adostutakoa betetzeari buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (14. or.).
- 11-24/POR-00089. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren lehiaketarako datari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (15. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren Erregistro orokorraren arreta presentzialeko 2024ko ordutegiaren aldaketa (16. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/ITP-00005. Interpelazioa, helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa**

*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako interpelazioa, helduen euskalduntzearen eta alfabetatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**INTERPELAZIOAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin:

18/1986 Foru Legean, Euskarari Buruzkoan, 1. artikuluan jasotzen da Legearen helburuetako bat dela herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea.

Horretarako, helduen euskalduntzea arlo estrategikoa da, euskarazko hitzun berriak irabazteko bidea baita. Orobat, euskaraz jabetzeaz gain, euskaltegietan edo bestelako euskara ikastegietan aritzen diren ikasle helduek erabilerarako jautzia egin dezaten erraztea ere oso garrantzitsua da.

Bestalde, PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin alderdiek 2023-2027 legealdirako adostu zuten Akordio Programatikoan, 12.4. puntuan, jasotzen da helduen euskalduntzea sustatuko dela.

Horregatik guztiatik, interpelazioa aurkezten dio Nafarroako Gobernuari helduen euskalduntze eta alfabetatzeari buruzko politika orokorraz.

Iruñean, 2024ko otsailaren 14an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/POR-00073. Galdera, Nafarroako Gobernuko goi-kargudunen agenda instituzionala argitaratzeari buruzkoa**

*AINHOA UNZU GARATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko goi-kargudunen agenda instituzionala argitaratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik argitaratzen da Nafarroako Gobernuko goi-kargudunen agenda instituzionala?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## 11-24/POR-00074. Galdera, Belateko tunelen kontratazio-mahaiko buruak kontratazio-mahaian egin diren proposamenak errefusatzeari buruzkoa

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak egindako galdera, Belateko tunelen kontratazio-mahaiko buruak kontratazio-mahaian egin diren proposamenak errefusatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Pedro González Felipe jaunak honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Belateko tunelen kontratazio-mahaiko zenbait kidek prozesu horren garapenaren oinarritzko alderdi batzuei buruzko proposamenak egin dituzte kontratazio-mahaian, eta kontratazio-mahaiko buruak proposamen horiek errefusatu ditu. Azalpenik eskatu al duzu jakiteko ea kontratazio-mahaiko buruak zer irizpide baliatu dituen proposamen horiek errefusatzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## 11-24/POR-00075. Galdera, institutu publiko batean iragan otsailaren 9an ETAREN alde egindako kantuak direla-eta hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, institutu publiko batean iragan otsailaren 9an ETAREN alde egindako kantuak direla-eta hartu diren edo hartuko diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariari Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita iragan otsailaren 9an ETAREN aldeko kantuak egin zirela institutu publiko batean, Hezkuntza Departamentuak eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuak zer neurri zehatz hartu dute edo hartuko dute bizikidetasunaren aurka doazen eta ETAREN biktimak zuzenean laidoztatzen dituzten halako gertakariak ekiditeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/POR-00076. Galdera, etxebizitzaren alokairu-prezioen ondorioz tentsiopeko zonak deklaratzeari buruzkoa

*IRATI JIMÉNEZ ARAGÓN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irati Jiménez Aragón andreak egindako galdera, etxebizitzaren alokairu-prezioen ondorioz tentsiopeko zonak deklaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzeta.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Irati Jiménez Aragónek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren webgunean 2024ko otsailaren 14an argitaratu zen albistearen arabera, etxebizitzaren alokairu-prezioen ondorioz tentsiopeko dauden zonen mapa bat taxutzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak. Albistean adie-

razten zenez, Nafarroako Gobernuko Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia datuak biltzen ari da une honetan, Nafarroan alokairuko etxebizitzaren merkaturako prezio errealak zeintzuk diren jakin ahal izateko.

Albisteak orobat zioen albait lasterren taxutuko dela tentsiopeko zonen mapa hori.

Tentsiopeko zonak deklaratzeko aukera ia onetsi zen estatuko legean dator jasota. Hori dela eta, estatuko legea baino lehenago onetsi zen araudi berekia daukagu Nafarroan. Horren ondorioa da Nafarroako araudia estatukoa baino murriztaileagoa dela; besteak beste, ez duelako aukera hori aurreikusten. Hortaz, araudia aldatu beharko litzateke Nafarroan tentsiopeko zonak deklaratu ahal izateko eta, halatan, deklarazio horrek eskaintzen dituen aukerak aplikatu ahal izateko.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer epetan eta zer neurri edo aldaketaren bidez taxutu nahi du tentsiopeko zonen mapa eta nola bermatuko du deklarazio horrek gutxienez ere estatuko legean jasotako betekizun berberak errespetatuko dituela?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Irati Jiménez Aragón

## 11-24/POR-00077. Galdera, Enplegurako Prestakuntzari buruzko I. Kongresu Nazionalari buruzkoa

*INMACULADA JURÍO MACAYA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Inmaculada Jurío Macaya andreak egindako galdera, Enplegurako Prestakuntzari buruzko I. Kongresu Nazionalari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Inmaculada Jurío Macayak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iragan otsailaren 13an Enplegurako Prestakuntzari buruzko I. Kongresu Nazionala egin zen Iruñean. Bertan, irakasleak, hezkuntza-sistemaren arduradunak eta Nafarroako nahiz Espainiako ekonomia-kudeatzaileak bildu ziren.

Zer balorazio egiten duzu Enplegurako Prestakuntzari buruzko I. Kongresu Nazionala dela-eta?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Inmaculada Jurío Macaya

## 11-24/POR-00078. Galdera, Guardia Zibileko agenteendako lan-baliabide eta -ekipamendu egokirik ezari buruzkoa

*EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak egindako galdera, Guardia Zibileko agenteendako lan-baliabide eta -ekipamendu egokirik ezari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako Emilio Jiménez Román jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 209. artikuluetan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Barneko, Funtzio Publiko eta Justiziako kontseilariak 2024ko otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Barneko ministro Grande-Marlaskak balen aurkako txalekoak murriztearen ondorioz Nafarroako Guardia Zibilak bizi duen egoera kritikoa ikusita,

Nafarroako Gobernuari zer irizten dio agenteendako laneko ekipamendu egokien eta baliabideen eskasiari?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## 11-24/POR-00079. Galdera, nekazarientzako eta abeltzaintzako neurri fiskalei buruzkoa

*IRENE ROYO ORTÍN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Irene Royo Ortín andreak egindako galdera, nekazarientzako eta abeltzaintzako neurri fiskalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Alderdi Popularraren talde parlamentarioari atxikitako Irene Royo Ortín andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Ikusita Nafarroako Gobernuak ia prest daukala nekazariei eta abeltzainei aurkeztuko dien proposamena, eta kontuan hartuta horiek salatzen dutela Espainiako presio fiskalik altuena pairatzen dutela eta Landa Garapeneko kontseilarik horri buruz "sistema ez da justua" adierazi duela, honako hau jakin nahi dugu:

Zertan dautza nekazariei eta abeltzainei eskaini nahi dizkiezuen neurri fiskalak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Irene Royo Ortin

## 11-24/POR-00080. Galdera, Industriaren Mahaiaren helburuei eta lan-egutegiari buruzkoa

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak egindako galdera, Industriaren Mahaiaren helburuei eta lan-egutegiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako Mikel Asiain Torres jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela zenbait aste jarri zen abian Industriaren Mahaia, industriari buruzko etorkizuneko legeari eraginen dioten zenbait kontu aztertzen joateko xedez. Lege horrek, zeina legegintzaldi honetarako programa-akordioan jasota baitago, gure enpresek behar duten eraldaketa digital eta ekologiko bikoitzerako aurrekontu-esparrua bideratuko luke, eta oinarri juridikoa emanen lioke, industria-lurzoruaren arloko beharrezkoak jorratuko lituzke eta foru-erkidegoaren interes estrategikoko proiektuaren figura bultzatuko luke, lurralde kohesioaren, ingurumen-kohesioaren eta gizarte-kohesioaren ikusmoldeetik modu bizkor batez kudeatzeko proiektuak.

Akordioan jasotako aipamen horiez harago, honako hau galdetzen diogu Industriako eta



Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariari:

Zeintzuk dira, zehazki, Industriaren Mahaiaren helburuak eta lan-egutegia?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

---

## 11-24/POR-00081. Galdera, zibererasoen aurrean erakundeen segurtasuna bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak egindako galdera, zibererasoen aurrean erakundeen segurtasuna bermatze aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari Patricia Fanlo andreak otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken hilabete honetan, Nafarroako Parlamentuak –eta, oker ez bagaude, Nafarroako Gobernuak berak ere bai– zibererasoak pairatu dituzte, entitate publikoen domeinuen aurkako eraso zibernetikoak egiten dituzten Errusiaren aldeko taldeenak zehazki.

Adituek ez dutenez baztertzen bestelako mehatxu gehigarri batzuk egotea, komeni da arreta areagotzea horiei aurrea hartzeko. Parlamentu honek mozio bat onetsi zuen, Zibersegurtasunaren Nafarroako Agentzia sortzeko, besteak beste. Gure ustez, bizi dugun testuinguru honek eguneroan jartzea eskatzen du, agentzia horren sorrera zertan den eta, bitartean, eraso horiei aurre egite aldera Nafarroako Gobernuak zer neurri hartzen ari den ikusteko

Beraz, Nafarroako Gobernuak zer ari da egiten erakundeen segurtasuna bermatzeko Errusiaren aldeko taldeen zibererasoen aurrean eta, kasu bada, bestelako mehatxu gehigarri batzuei aurrea hartzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

## **11-24/POR-00082. Galdera, Espainiako Gobernuari Nafarroaren zor publikoko 550 milioi euro bere gain har ditzan exijitze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa**

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak egindako galdera, Espainiako Gobernuari Nafarroaren zor publikoko 550 milioi euro bere gain har ditzan exijitze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer zuzemen egin ditu Espainiako Gobernuari exijitzeko Nafarroaren zor publikoko 550 milioi euro bere gain hartzea? Zenbateko hori da, hain zuzen ere, ERCrekin iragan azaroan sinatutako akordioaren ondoren Kataluniaren zorraren egoeraren arabera Foru-erkidegoari dagokiona.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

## **11-24/POR-00083. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak orain zergatik uste duen ez dela beharrezkoa bere konpromisoa betetzea, sustapen ekonomikoarekin eta enpresa-lehiakortasunaren garapenarekin lotutako eginkizunak betetzen dituzten sozietate publikoen bikoiztasuna ekiditekoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, jakiteko ea Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak orain zergatik uste duen ez dela beharrezkoa bere konpromisoa betetzea, sustapen ekonomikoarekin eta enpresa-lehiakortasunaren garapenarekin lotutako eginkizunak betetzen dituzten sozietate publikoen bikoiztasuna ekiditekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak sustapen ekonomikoarekin eta enpresa-lehiakortasunaren garapenarekin lotutako eginkizunak betetzen dituzten sozietate publikoen bikoiztasuna ekiditeko konpromisoa hartu zuen 2022ko apirilaren 28ko txostenean. Orain zergatik uste du ez dela beharrezkoa konpromiso hura betetzea?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-24/POR-00084. Galdera, STEM karrerak emakumeen artean sustatzeari buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, STEM karrerak emakumeen artean sustatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Kevin Lucero Dominguesek, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak 2024ko otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Otsailaren 11n Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Eguna ospatu zen.

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten STEM karrerak emakumeen artean sustatzeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Foru parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## **11-24/POR-00085. Galdera, nekazaritzako sektorearekin egindako bilerei eta Landa Garapeneko Departamentuaren posizioari buruzkoa**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak egindako galdera, nekazaritzako sektorearekin egindako bilerei eta Landa Garapeneko Departamentuaren posizioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko eledun Pablo Azcona Molinetek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko kontseilariak heldu den otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egungo egoera katramilatsua aztertze aldera Nafarroako Gobernuak eta lehen sektoreak izandako bileretako azkena iragan ostiralean izan zen, eta astelehen honetan beste bat izanen da Kontseilu Sektorialean.

Zer balorazio egiten duzu bilera horiei buruz? Zein da zure departamentuaren posizioa?

Iruñean, 2024ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

## 11-24/POR-00086. Galdera, aurrekontuetan jasotako diru-bilketaren galeraren eta azken urteetako joeraren balorazioari buruzkoa

LAURA AZNAL SAGASTI ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Aznal Sagasti andreak egindako galdera, aurrekontuetan jasotako diru-bilketaren galeraren eta azken urteetako joeraren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak ahoz erantzun dezan:

2024ko ekitaldiko onura fiskalen aurrekontuaren arabera, 1.779 milioi euro gutxiago bilduko dira kontzeptu hori dela-eta; hau da, aurreko ekitaldian baino % 20 handiagoa izanen da galera.

Onura fiskalak urtero igo dira 2021etik aitzina.

Hori guztia ikusita, honako hau galdetzen diot Nafarroako Gobernuari:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du aurrekontuko diru-bilketako galera hori eta azken urteotako joera direla-eta?

Iruñean, 2024ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: Laura Aznal Sagasti

## 11-24/POR-00087. Galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei-Erorien monumentua” eraisteko proposamenari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, “Nafarroak gurutzadako bere hildakoei-Erorien monumentua” eraisteko proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak 2024ko otsailaren 22ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak zer balorazio egiten du "Nafarroak gurutzadako bere hildakoei-Erorien monumentua" eraistearen aldeko manifestuan jasotzen den 19 elkarte memorialistak egindako proposamena dela-eta?

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-24/POR-00088. Galdera, 2023an Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin adostutakoa betetzeari buruzkoa

MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, 2023an Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin adostutakoa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 209. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe jartzen dio bere buruari Nafarroako Medikuen Sindikatuarekin 2023an adostutakoa betetzeko eta, halatan, medikuek grebara jotzea ekiditeko?

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: María Teresa Nosti Izquierdo

## **11-24/POR-00089. Galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren lehiaketarako datari buruzkoa**

*JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obren lehiaketarako datari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak gaurkotasan handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuko lehendakariak zer egunetarako aurreikusten du lehiaketara ateratzea Nafarroako Ubidearen bigarren faseko obrak?

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren Erregistro orokorraren arreta presentzialeko 2024ko ordutegiaren aldaketa**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko otsailaren 19an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko administrazio elektronikoaren funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 9.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, Erregistro elektronikoan dokumentuak aurkezteko bitarteko telematikoak erabiltzen ahalko dira, Legebiltzarraren egoitza elektronikoan jarritako sarbidea dela medio, erregelamendu horretan araututako moduan.

Halaber, erregelamendu horren 12.2 artikulua ezartzen duenez, Erregistro elektronikoan urteko egun guztietan eta egunaren hogeita lau orduetan aurkezten ahalko dira dokumentuak, ezinbesteko arrazoi teknikoengatik gerta daitezkeen etenaldiak gorabehera. Etenaldien gaineko informazioa emanen da Nafarroako Parlamentuaren egoitza elektronikoan.

Hori guztia ikusita, aldatu egin behar da Nafarroako Parlamentuaren Erregistroaren 2024ko ordutegia, Mahaiaren 2023ko abenduaren 18ko Erabaki bidez onetsi zena.

Horren guztiaren ondorioz, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 118. artikulua ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

**1.** Ezartzea ezen, Mahaiak horretarako onesten duen erabakian ezartzen denarekin bat Nafarroako

Parlamentuaren egoitza elektronikoa abian jartzen denetik aitzina, honako hau izanen dela 2024an Nafarroako Parlamentuaren Erregistro orokorraren arreta presentzialeko ordutegia:

– Oro har, astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 17:30era; eta ostiraletan, berriz, 09:00etatik 14:30era.

– Uztailan, abuztuan eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa.

– Erregistroaren arreta presentzialeko bulegoa itxita egonen da 2024ko uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n, 12an eta 26an, abuztuaren 16an, abenduaren 2an, 24an eta 31n eta larunbatetan, igandeetan eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunetan.

**2.** Ondorio guztietarako baliogabeak deklaratzeko 2024ko uztailaren 8a, 9a, 10a, 11, 12a eta 26a, abuztuaren 16a eta abenduaren 2a, 24a eta 31. Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbatak, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias